




ZAKILIXUT



ganbaratik

Garikoitz Berasaluze

Upela buruan

Frantziakoari ez, baina denboraldi berriko sagardotegietako Tourrari hasiera eman dio Miguel Indurainek. Hemendik aurrera, etapa berriak egunero izango dira prest, upelari nork astindu handiagoa emango. Txirrita handiak ere, batetik bestera mugitzeko bere alferkerian, egunak igarotzen omen zituen sagardotegian, upela hustu artean. Orain, hemendik hara eta handik hona ibiltzeko berezko arazorik ez denean, sagardoa kantari hasten da Olariagak upeling deitu zuen kirol nazionalen profesionalak ez direnen kaskoetan. Eta horrelakoetan, Sarrionandiak dioen bezala, etxera itzultzea daitekeen gauzarik zailena bihurtzen da.

Autoak ez du zerikusirik. Berria edo zaharra, dotorea zein nolanahikoa, bolanteari heldu orduko upeling kirolariak Indurainek Alpe d'Huezaren baino bihurgune gehiago marrazten ditu bidean, errepidea inon dagoen zuzenena izanda ere. Helmuga, ohi bezala, ertzainen ezkerreko begian dauden sagardotegien inguruetan da, eta bertara iristean, alkoholimetroak ematen zaizkie kirolarietara.

Kirol gehienak bezala, sana da hau ere. Galdetu, bestela, dituen milaka jarraitzaileei edota bertsolarietara. Upelarekin oroitzen ditut, bestalde, hainbat komiki eta marrazki bizidunetan duten guztia galdu ondoren larru gorritan agertutako pertsonaiak. Lotsa estali nahian edo. Gurean ere upela antzera erabiltzen dugula iruditzen zait. Eguneroko arazoei, eztabaidei, gehiegi hitz egin beharrak eta antzekoak sortzen diguten lotsa estali nahian. Badugu, bai, hainbat upelen beharra. Eta horrela gabiltza, errealitateari heldu nahi ezean. Upela buruan eta ibili munduan. ▀

Leitzarano, aisialdirako

■ Diputazioak bailara eraldatzen segitzen du, parke natural izenda dezaten

LEITZARANGO bailara, Gipuzkoako baskartuena eta despopulatuena herritarren aisialdirako egokitzea erabaki zuen Gipuzkoako Diputazioak 1992an onartu zuen inbertsio eta jardura planean. Orduetik lan garrantzitsua egin du Foru Aldundiak bailara eraldatzeko. Helburua zera da: 2000. urtean Jaurlaritzak parke natural izan dezan egokitzea.

Leitzarano Andoain eta Leitza artean dagoen 5.000 hektareako eremu zabala da, alegia, Anoeta bezalako 5.000 futbol zelai adinakoa. Garai batean pasabide inportantea izan zen, Plazaola trenak Iruñea eta Donostia lotzen baitzituen. Trena kendu zutenean bailarako baso zabalak egur ustiapenerako erabili ziren, eta intsinis pinuak ordezkatu zituen bertako zuhaitz eta landare autoktonoak.

Autobiaren liskarra gaudituta, 1992an onartu zuen planean, Diputazioak beste zerbitzu bat eman nahi izan zion haranari, eta zuen aberasgarritasun naturala herritarren gozagai jartzea erabaki zuen. Horretarako, ordea, lan handia egin beharko zuen basoak garbitzeko, koniferoak bertako zuhaitzekin ordezkatzeko, Plazaola trena pasatzen zen bidean dauden 28 tunelak konpontzeko, aisialdi eta kanpatzeko guneak jarri eta egokitzea...

1992tik 1997ra bitartean planaren lehen fasea egin du Diputazioak. Denbora horretan, 250.000 tona pinu egur atera dituzte Diputazioak langileek. Mendibide gehiago ez irekitzearen, airez atera dituzte egurrak, kablez. Koniferoak atera dituzten guneetan bertako zuhaitzak landatu dituzte: haritzak, gaztainondoak, lizarrak eta pagoak, besteak beste. 1992an 2.500 hektareako lur eremua betetzen zuten pinuak Leitzaranoen; bertako zuhaitzek, aldiz, 305 hektarea besterik ez. Egun, egoera arras aldatu da. Pinuak 1.850 hektarea hartzen dute; eta bertako zuhaitzek 1.006 hektarea. 2000. urtean, plana bukatzen dutenean, basoaren erdia baino gehiago beteko dute hemengo zuhaitzek: 1.441 hektarea.

Iñaki Txueka Gipuzkoako Diputazioak Nekazaritza diputatuak eman zituen datuak. Haren arabera, 1992tik hona Plazaola zaharraren bidean dauden 11 zubi konpondu dituzte, eta izokin eta amurruak bota dituzte ibaira. Ibaia eta haren ingurua Gipuzkoako lehen biotopo izendatu zuen Eusko Jaurlari-



Olazarren egiteko asmoa du Diputazioak bost aisialdi guneetako bat.

ANDER GILLENEA

tzak. Horrez gain, basurde ugari sartu dituzte Leitzarango basoetan. Planaren lehen fasean 150 milioi pezeta gastatu ditu Diputazioak (sei milioi libera).

Bigarren faseari ekin diote

Lehen fasea amaituta, proiektuaren bigarren faseari ekin dio jadanik Diputazioak. Hala, pinu egurra ateratzen segitzen dute basoetatik, eta horren garrantzi ekonomikoa azpimarratu du Iñaki Txuekak, horrekin irabazten duten dirua Leitzaranoen bertan inbertitzen baitute osteria ere.

2000. urtean, plana bukatzen dutenean, basoaren erdia baino gehiago beteko dute hemengo zuhaitzek: 1.441 hektarea

Tunelen egoera hobetzea jo zuen hurrengo urteetako erronkatzat Nekazaritza diputatuak, jendea lasaitasunez paseatu dadin. «Egun, oso egoera txarrean daude tunel batzuk, eta pasatzeko moduan izan daitezten derrigorrezkoa da egokitzea». Horrez gain, atsederako edo aisialdirako bost gune ezarri nahi ditu Diputazioak, Olazar (Etxarri, Andoain inguruko jendearentzat), Otita, Lapur-zulo, Sorregieta eta Leitza muga-muga dagoen Urtoko Zubieta. Horrez gain, kanpatzeko ere bost gune ezarriko dituzte, Diputazioak zorrotz zainduko dituen.

Hala, pixkanaka-pixkanaka Jaurlaritzak 2000. urtean Leitzarano parke natural izenda dezan baldintzak azkartu nahi ditu Gipuzkoako Diputazioak. Baina horretarako beste 160 milioi pezeta inguru inbertitu beharko dituzte 2000. urtera bitartean (6,4 milioi libera).

Iñaki Petzarroman

DONOSTIA